

Arrasate

P R E S S

2001.eko
mahtzurari 25a
642. zomb.



ZORIONAK!!

rikitilari Eskolak hamar urte egin ditu



54 MINUTUAN 365 EGUN KENDUKO DIZKIOGU GAINETIK ZURE AUTOARI EZ ERREPRODUZITZEKO MATERIALA

AUTOAREN LEHENENGO URTEKO EGUN GUZTIAK PASATUKO DIRA 54 MINUTUAN, TARTE HORIXE BAITA LEHENENGO AZTERKETA SAKON-SAKONETIK EGITEKO BEHARKO DUGUN DENBORA, AURREZ ORDUA HARTUTA EDO HARTU GABE. ETA HORI DA DOI-DOI GUK KOBRATUKO DIZUGUNA. EZTA MINUTU BAT GEHIAGO ERE. ZUK BADA KIZU ZER TRATU EMATEN DIZUGUN. JAR EZAZU, BERAZ, ZURE NISSAN-A ESKURIK ONENETAN. BERME ETA KONFIANTZARIK HANDIENA EMANGO DIZUTEN ESQUETAN. ZIUR AGINTZEN DIZUGU 54 MINUTU BAKARRIK BEHARKO DITUGULA ZURE NISSAN-AREN LEHENENGO URTEKO AZTERKETA EGITEKO.

SEE THE CHANGE



ALDIBI AUTOAK, S.A.

Zigarrola Kalea, 1 - Tel. 943 71 20 02 - 20500 Mondragon-Arrasate

Gidatze - baldintza normaletan urtean, gehienez, 10.000 km egiten dituzten diesel motorreko Primera eta Terrano II modeloentzat, urtean, gehienez, 15.000 km egiten dituzten gasolinazko motorreko ibilgailuentzat, eta urtean, gehienez, 20.000 km egiten dituzten diesel motorreko Almera eta Almera Tino ibilgailuentzat balio du denbora horrek. Bestelako modelo, ondorengo azterketa edo bestelako mantentze-tarteetarako, kontsultatu kontzesionarioari.

Esan ala izan, edo esateko izan

Ander Elortondo / Euskalduna?

Nik ez daukat zer naizen esan beharrik, garbi baitaukat. Gainera, zer naizen ere ez zaio inori axola. Asko dira zer diren esaten dutenak. Badira ondorengoak diotenak: 'Ni aber-tzalea naiz', 'Ni Athleticzalea naiz', 'Ni EUSKALDUNA naiz'.... Eta hori al da guztia? Esanda dena egi-na dutelakoan. Hori bai, lau urtetik behin koheren-tziaz bozkatu eta kito. Gauzak garbi dituzte, zer diren esan (Izate-arena biharko) eta esa-te horrekin bat, eska-tu. Euskalduna naiz, ikastolak bultzatu behar dira (esaldi inper-tonala, lehen pertsona ahaztuz), eus-karak ofiziala izan behar du (baina aldarrikapen hau lau aldiz erda-raz egin eta behin euskaraz)....

Asko xumeagoa da, bai, baina erabat eraginkorragoa ogi dendan ogia euskaraz eskatzen duena, tabernan 'lau zurito' esan eta gero euskaraz mintzatzen jarraitzen duena eta zaratarik gabe eguneroko bizi-tzan, erabili-az, ingurukoei euskara gure hiz-kuntza dela erakusten duena. Argi daukat izana dela garrantzia duena, eta ez esana.

Gainera, izana duenak duintasunez joan

daiteke eskatzera, badelako. Eta badenez, aurpegira, hipokrisiarik gabe, esan behar-rekoak esateko gai delako. Besteak, aldiz, esan esango du, baina arrazoi izan arren, bere hipokrisiak argumentuak usteltzen dizkio. Eskaera jasotzen due-narengan hipokrisi jarrera

horrek jarrera negatibo-ak piztuko ditu eta ondorioz esateak eta ez egiteak min bikoitza eragingo dio gure hizkuntza-ri.

Eska dezakegu, horretarako eskubi-dea baitugu. Egin ere egin dezakegu, euskaldu-nak bagara erantzukizuna gure esku baitago. Benetan argi dauka-

dana da askoz zailagoa dela gure inguru hurbila euskalduntzea, inori euskaldun dadin eskatzea baino. Eta hau esperientzia pertsonalez diotsuet, egunero euskaraz jakin arren, abertzale omen diren arren, espainol hutsez bizi direnekin inguratzen bainaiz. Gura baduzue, zuek erabaki zer diren. Ni ez naiz inoiz inoren epaile izan-go, nahikoa daukat nire buruarekin eta. Eta zuk?

“Benetan argi daukadana da askoz zailagoa dela gure inguru hurbila euskalduntzea, inori euskaldun dadin eskatzea baino”

■ DIRULAGUNTZAK

• Empresa Publica fundazio-ak dirulaguntza deialdia egin du urtero legez. Enpresatan prakti-kaldiak egiteko aukera lan espe-rientziarik ez duten in-jeniari edo lizentziadunendako. Epea: ekai-nak 8.

• Zestoako Udalak hango herriko hizkera eta kultura onda-rearen gaineko ikerketa egiteko beka emango du. Epea: ekainak 30.

■ LANA

• Oñatiko Udaleko kirolde-girako begirale-sorosle eta harre-ragile bana behar dira. Epea: maiatzak 28.

• Arrasateko Udalak deialdia egin du emakumeen aukera ber-dintasunerako agentea aldi bate-rako kontratatzeko. Epea: maiat-zak 31.

• Lezoko Udalera-ko liburu-tegiko eta Ongizate Saileko ardu-radunak behar dira. Epea: GAOn argitaratu zain.

• Irungo Udalera-ko informa-zio eta tramitazio agentea eta txistulari bandako zuzendaria. Epea: GAOn argitaratu zain. Oñati-ko Udaleko kirolde-girako begi-rale-sorosle eta harreragile bana behar dira. Epea: maiatzak 28.

■ IKASTAROAK

• Gipuzkoako Goi Mendi Esko-laren eskutik, hastapen eta hobe-kuntza mailako alpinismo ikasta-roa arkaitez. Etxaurin egingo da ekainaren 9, 10, 16 eta 17an.

■ LEHIAKETAK

• Gaztemaniak V. maketa lehiaketa. Gipuzkoako musika-riendako deialdia, betiere disko etxeren batekin argitaratutako dis-korik ez badute. Epea: ekainak 30.

Argibideak:
GAZTE ZERBITZUA
943 77 00 65

¿VISTE AYER LA PELICULA?

ZER? EZ DAKIZUE EUSKARAZ ALA?

¡ESTOS CRIOS! ¡YA VAN A LA IKASTOLA PERO...!

SI, SI, NI QUE LO DIGAS, CHICA

HORRELA EZ DUGU ARRASATE EUSKALDUNDUKO!

AED ELKARTEA
arrasate

urteurrenak

Ingurugiro Eskola eraiki

■ **66. zenb.**
(1990-06-01)



Udalako Ingurugiro Eskolaren lanak Construcciones Arrasate enpresari adjudikatzea erabaki zuen udalak. Obraren kostua 39 milioitan zehaztu zuten eta horietatik, 27 milioi Aldundiak jarriko lituzke. Eskola eraikitzea udalaren aspaldiko asmoa zen eta aurrez zazpi pertsona aritu ziren egitasmoa prestatzen. Helburua umeez ekologia eta ingurumena zer den ikastea izango litzateke.

Goi mailako Lanbide Heziketa

■ **66. zenb.**
(1990-06-01)

Hezibide elkarteak goi mailako Lanbide Heziketa bultzatzeko asmoa erakutsi zuen, jarduera profesionalean sortzen diren espezialisten beharrari erantzun ahal izateko. Hain zuzen ere, ikastaro eta ikasturte horiek Eteon, Eskola Politeknikoan, Almenen, San Viatorren eta Aretxabaletako Lanbide Heziketa Eskolan eskaini gura zituzten.

Garabi zerbitzua jartzekotan

■ **66. zenb.**
(1990-06-01)

Udala garabi zerbitzua arautzeko ordenantza egiten aritu zen. Garabiak eramandako autoa berreskuratzeko 5.000 pezetako isuna ordaindu beharko litzateke. Ostera, motoa berreskuratzeko, 1.500 pezeta. Diru kopuru horrekin garabi zerbitzua baino ez litzateke ordainduko, eta ibilgailua gaizki aparkatuta egoteagatik beste isun bat ordaindu beharko litzateke. Garabiak jasotako autoak Gelma parean utziko lirateke, Ertzaintzaren ardurapean.

besteek esana



Zuzenbidea ikasten hasi nintzenean abokatu laboralista izan nahi nuen. Amets bat besterik ez zen, baina lege faxistetan zirrikituren bat bilatzeko gai ikusten nuen nire burua, langileen eskubideak hain urratuak izan ez zitezten. Zirrikiturik bazela iruditzen zitzaidan, eta orain ere hala uste dut. Hala ere, duela hamabost urte norbaitek epaile izatera helduko nintzela esan izanez gero, ez dakit zer esango nioke... Dena den, epaileekiko irudia asko aldatu zait eta ez onerako. Baina, lehengo epaileen jarrera eta oraingoa ez zaizkit berdinar iruditzen: gizartea aldatuz doa eta epaileok ez gara salbuespen horretan»

Nekane San Migel

EPAILEA
ARGIA

(2001eko maiatzaren 13a)




ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Olatora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net
Arrasate Irratia: 943 71 17 31

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Iker Barandiaran **Kazetariak:** Ubane Madera, Leire Kortabarria eta Xabier Urzelai. **Publizitateak:** Arantzazu Lagunilla, Natali Martinez eta Izaskun Bolinaga. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Zuzentzaileak:** Sergio Azkarate. **Administrazioa:** Agurtzane Gaiñarain, Ane Berebizbar (Tel.: 943 71 23 90) **Diseinua:** Alex Azkarate. **Asteburuetako berriemilaka:** Lorea Agiriano. **Banaketak arduraduna:** Naitara Odriozola-AED. (Tel.: 943 77 12 26). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.600. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimetgia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

 ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.



Arrasateko Udaleren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

aurkibidea

- Herritarren berbak. 3
- Lehen begiratu a 4
- Asteko hitzorduak 5
- Inkesta 6
- Astearen erreposoa. 7
- Orain eta hemen. 8/11
- Txutxumutxuak 12/13
- Asteko gaia 14/16
- Kirolak jokoan. 16/20
- Beheko dendatik. 21
- Kanpoan bizi 22
- Kulturaren txokoa 23/24
- Uhinetan barrena 25
- Foto zaharra 26



ZERBITZUAK

Eritzeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
 Iguatorialdea 943 71 26 91
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 943 79 39 00
 (emakumeak) 943 79 44 11
 Buru osasunerako zentroa 943 79 90 11

Larrialdiak

SOS Deiak 112
 Gurutze Gorria 943 76 55 76
 DYA 943 78 71 57

Anbulatorioak

Guardiako medikua 943 46 11 11
 Astelehenetik
 Barikura 14:00etatik 08:30era
 Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
 asteburu eta
 jai egunetan egun osoa
 Arrasate
 Astelehenetik
 Barikura 08:00etatik 17:00etara
 Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
 • Txanda hartzeko: medikuntza
 orokorra eta pediatria 943 03 52 50
 • Espezialitateak 943 03 53 11
 • Ikuskatzailea 943 03 52 52
 • Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11
 Aretxabaleta 943 79 74 58
 Aramaio 945 44 53 40

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44

Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
 Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
 Gasa 900 40 05 23
 943 79 78 44
 943 79 76 78

Garraioak

Taxiak 943 79 12 22
 PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentroak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburutegia

Monterron 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	09:00 (gaztelaniaz)
	11:00 meza nagusia (euskaraz)
	12:30 (elebiduna)

San Frantzisko eliza

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	10:00 (gaztelaniaz)
	11:00 meza nagusia (euskaraz)
Domeka	12:30 (gaztelaniaz)
09:00 (euskaraz)	19:00 (gaztelaniaz)

Uribarri parrokia

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	11:30 (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

San Andres eliza

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	10:00 (elebiduna)
	11:00 (euskaraz)
	12:00 (gaztelaniaz)
	13:00 (gaztelaniaz)

Santa Teresa eliza

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	10:30 (gaztelaniaz)
	11:30 San Isidron (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

Santamañako eliza

Jalegun bezpera eta zapatua	Domeka
19:00 (gaztelaniaz)	12:00 (gaztelaniaz)

arizmendiren oharra

Hilaren 12an, Arizmendik Ikastolaren Eguna ospatu zuen, eta egurrezko eskultura batzuen zozketa egin zuen. Lehenengo saria 653 zenbakidunarendako izan da, eta biga-

rrena, 117 zenbakidunarendako. Txartel horiek dituztenek jo bezate Arizmendira euren sariak jasotzeko.

arrasate musikal

Zabalik da Arrasate Musikalen izena emateko epea, ekainaren 22a arte. 17:00eta-

tik 20:00etara bitartean euren egoitzara joatea besterik ez duzue.

almenekoen desfilea

Almen ikastolakoek moda desfilea egingo dute egubakoitz honetan, hilaren 25ean, San

Viator Txikin, 17:30ean eta 19:30ean, ikasbidairako dirua batzeko.

musika emanaldia

Jesusi Etxebarriaren musika akademiako ikasleek emanaldia egingo dute San Frantzisko

Xabier ikastolan ekainaren 1ean, 18:30ean.

donostiara irteera

Ekin Emakumeak elkarteak Donostia alde-ira irteera antolatu du ekainaren 9an. Aqua-

riuma eta Txillida-Leku bisitatuko dituzte, besteak beste.

1950eko kintada

Ekainaren 2an, 1950an jaiotakoek kinto ospakizuna izango dute. Izena emateko, jo Kutxa-

ra edo Euskadiko Kutxara.

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

Egubakoitza, 25

- Corcuera, Aranbarri

Zapatua, 26

- Amezua, Santa Marina

Domeka, 27

- Amezua, Santa Marina

Astelehena, 28

- Zabala, Zarugalde

Martitzena, 29

- Ruiz, Magdalena

Eguaztena, 30

- Morales, Araba

Eguena, 31

- Azkoaga, Ferrerías

txatxiliren udalekuak

Zabalik jarraitzen du Txatxilipurdiren udalekuetarako izenemate epeak. Ekainaren 15era arte izango duzue aukera. Jo Pablo Uranga kaleko 6.era.

lan bioenergetikoa

Gorputzaren lan bioenergetikoa lantzeko taldea sortu du Arrasate Yoga Elkarteak. Eguazteneko elkartuko dira, 18:30ean. Argibide gehiagorako, deitu 616 96 57 95 telefonora.

San Juanak berdiñak izango lirake tanborrada barik?

SUDC elkartiak jakiñarazi dauenez, txikixen tanborrarako oso gazte gutxik emun dau izena.



Aitor Crespo
(Ikaslie)

Ez naz hemengue, eta neure herrixen ez dau tanborradarik, baiñe uste dot jaixek asko galduko leukiela.



Gregorio Etxabe
(Langabie)

Neuri tanborradiak ez dust bape erakarten; gaiñera, emuten dau militarizauta dagoela, bata bestiaren atzetik. Ez, jaixek ez leukie bape galduko.



Larraitx Kortabarria
(Ikaslie)

Ez, bizittasun eta grazia apur bat galduko leukie jaixek.



Yolanda Lacruz
(Ikaslie)

Bai, jaixak asko galduko leuke, San Juanetako gauza polittinetakue dalako.



Gorka Zubizarreta
(Ikaslie)

Ez dot askorik jarraiketan, baiñe jentiarri gustetan bajako, parte hartu beharko leuke.



Jaione Guezmes
(Langillie)

Bai, azken bi urtiotan konpainia barrixekin politta gerau da, eta pena izengo litzake hori galtzie.



Lierni Axpe
(Langillie)

Bai, azken bi urtiotan asko inddertu da, eta jaixek asko galduko leukie.



Miguel Angel Mondragon
(Langillie)


Nere ustez, San Juanen esentzia tanborradan dago, oso elegantie da, eta jaixek asko galduko leukie.

TTUKUN

Fotokopiak
Liburu josteak
Fotokopiak koloretan
Planoen kopia
Offset-a
Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62



Berezitasunak
Kazuelatxoak
Otarteko hotz eta beroak
Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76



Zoruak • Lijatu eta barnizatuak •
Erradapiak • Leihoak • Ateak •
PVCko leihoak •
Aluminiozko leihoak •
Eskailerak • Armairu enpotratuak...

GREMIOEN KOORDINAZIOA

Erakusketak eta biltegia:
Kale Txiki, 3 - beheka • ARRASATE
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20

USTEAK USTE

Gazteak iratzartzen

Oso denbora luzean ez naiz egon gaztetxe-ko batzar baten. Pasa den domekan hara gerturatu eta pozez bete ninduen ikusitakoak: gaztetxea txukun-txukun, paretak zuriz -egingo diren graffiti eta muralendako prestatuta- eta gazte kopuru polita egin beharreko jarduerak eztabaidatzen eta zehazten. Bihar, justu, gaztetxeak 10. urteurreneko egun handia ospatuko du herri bazkari eta guzti, eta bidean, urte hauetan, hainbat eta hainbat belaunaldik erabili izan dute ospitale zaharreko egoitza. Nire lagun batek zioen moduan, gaztetxeen bizitza sinusoidala da, eta, nire ustez, egungo ohitura eta joerak kontuan hartuta gero eta zailagoa dirudien arren, domekan arnastutakoaren ondoren gorantz jo behar du gaztetxeen dinamikak halabeharrez. Zenbait gazte, iraganeko erredurez hain kutsatuta ez daudenak, herriko gazteen lankidetzaren aldeko apustu sendoa egin dute eta azken urteetako saiakerak baino eraginkorragoa dirudi euren asmoa. Hala izan dadila!

Iker Barandiaran

astea bi hitzetan

■ **MUren diploma banaketa**

Mondragon Unibertsitateko 291 ikasle diplomak jaso zituzten egubakoitzean Iturrieko kiroldegian. 1999-2000ko promozioak dira, Industria Ingeniaritza Teknikoa, Automatika eta Industria Elektronika Ingeniaritza eta Industria Antolaketa Ingeniaritza ikasketak egin dituztenak hain justu ere.

Diplomak Mondragon Unibertsitateko errektore Jabier Retegik banatu zituen, eta halaber, ekitaldian MCCko presidente Antonio Cancelok eta Eskola Politeknikoko zuzendari Jabier Retegek ere esku hartu zuten.

■ **Ikerlan**

MCCko ikerketaguneak,

Ikerlanek, batzar orokorra egin zuen pasa den egunean. Ikerlaneko presidente Santiago Alvarezek 2000. urteko datuak eman zituen. Adierazitakoaren arabera, 2.000 milioi pezetako irabaziak izan zituen iaz Ikerlanek. Horrek esan nahi du %13'7 gainditu dituela 99. urteko irabaziak. Bereziki, ikerketarekin eta garapenarekin zerikusia duten proiektuetan lortu dute igoerarik handiena. Horrez gain, 2001-2004 urteetarako plan estrategikoa finkatu zuten. Besteak beste, zenbait zaharberritze egingo dituztela jakinarazi zuten eta beste 2.100 m² bideratuko dituztela garapenerako. 1.400 milioi pezeta kostako dira lan horiek.

■ **Dirulaguntzak**

Udalak herriko zenbait elkarteri dirulaguntzak ematea onartu du oraingo aste gobernu batzordean. Guztira, ia 70 milioi pezeta banatuko ditu udalak. Kopururik handiena ARKO eta Goiena Komunikazio Kooperatibek jasoko dute, 33 milioi pezeta pasatxo. Txatxilipurdi elkarteak dator segidan, ia 26 milioi pezetarekin. Txikilandiarako eta ludotekarako aurrekontuak ere sartzen dira kopuru horretan. Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak, berriz, ia bederatzita milioi pezeta eskuratzeko ditu. Besteak beste, 800.000 pezeta inguru auzolandegietarako eta AEDko Gazte Sailarendako izango dira. Halaber, Euskalan elkarteak ia milioi erdi pezeta jasoko ditu.

■ **Haikaren ilegalizazioa**

Borroka Eguna zela-eta, Gazte Bilguneak manifestazioa egin zuen egubakoitzean Mondragoen. Zenbait eskolatako gazteek ere bat egin zuten deialdiarekin.

Garzonek Haika legez kanpo utzi duela salatzearen, euren ezadostasuna erakutsi nahi izan zuten modu horretan.

Horrez gain, arrazoi beragatik eta Euskal Herritarrok alderdiak deituta, beste manifestazio bat izan zen iluntzean. Ertzaintza etengabe aritu zen zaintza lanak egiten, tentsio uneak eraginez, eta bukatu zenean istiluak gertatuak ziren.



UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

M
MEMESA
Industria hornidurak
Tel. 943 71 24 25

LAKET
Bonaventure • Diesel
Pepe • Levis
Otalora, z/g Behea ARRASATE
Tel.: 943 79 11 72

Bi arrasatear Auzitegi Nazionalera ustezko apologiagatik

Zutik alderdiko bi kide arrasatearren ustezko apologia delitua epaituko du Madrilgo Auzitegi Nazionalak. 35 urteko Alberto Encinas eta 45 urteko Piter Encinas anaiei egotzitako delitua da hori. Biak pasa den egueneko manifestazioaren ondoren atxilotu zituen Ertzaintzak.

GERTATUTAKOA

Kontua da, Gazte Bilguneak deituta, manifestazioa egin zela herrian Haikaren ilegaltzazioarengatik protesta egiteko. Manifestazioa bukatu eta Eusko Gudariak abestu ondoren, norbaitek "Gora ETA militarra" oihukatu zuen eta, segidan, Ertzaintzak manifestarien kontra bortizki kargatu zuen. Horren aurrean, manifestari gehienak arinetan hasi ziren, baita Alberto eta Piter Encinas ere. Baina Ertzaintzak atxilotu egin



zituen, ustezko terrorismoaren apologia euren zuten susmoarekin. Gaua komisarian eman zuten eta hurrengo egunean Bergarako epaitegira eraman zituzten. Hango epaileak behin-behineko askatasunean utzi zituen, fidantza barik, baina jakinarazi zien euren kasua Madrilgo Auzitegi Nazionalera bidaliko zuela. Terrorismoaren apologia egiteaz akusatuta

daudenez, gai hori epaitzea Auzitegi Nazionalari dago-kio.

UKATU

Bi arrasatearrek ukatu egin dute "Gora ETA militarra" oihukatu izana, eta bereziki, Zutik alderdiko kide direla nabarmendu nahi izan dute, hortaz, Zutik alderdiaren pentsakerarekin bat egiten dute indarkeriaren kontra.

Garbiketan gauzak berdin

Eguaztenean itxaropen arrasatorik izan bazuten ere, garbiketa arlokoek egoera beretsuan segitzen dute. Donostian bilera izan zuten patronalak eta sindikatuek. Comisiones Obreras sindika-



tuko ordezkari Enrique Marcosek adierazitakoaren arabera, sindikatuek hasierako esigentziak apurtxo bat leundu zituzten, patronalarekin adostasuna lortu ahal izateko, eta soldaten igoeraren eskaera %6tik %5'25eraino jaitsi zuten. Hala ere, patronalak, asko jota, %4'75 eskaini zien, hortaz,

eguztenean ere ez zuten hitzarmenik lortu.

CCOO sindikatuko ordezkariak adierazitakoaren arabera, horren aurrean orain arte moduan segituko dute garbiketako langileek: greban eta protestak egiten. Dagoeneko, hilabete pasatxo eman dute greban.

Zergak



Udalak jakinarazi du 2001eko lehenengo hiruhilabeteko ur eta zabor zergen ordainagiriak ordain daitezkeela. Borondatezko epea maiatzaren 17tik uztailaren 17ra artekoa da. Epe hori igarota, ordaindu barik dauden ordainagiriak %20ko gainkarguarekin kobratuko dira.

ELKARTASUN EGUNA (III)

6.000 milioiren adimena martxan

Harrigarria da benetan giza ezagutza zein abiaduran hazten den. Zenbat gauza berri ikasten diren munduan uneoro! Norbaitek gaitxotasun bat nola sendatu asmatzen du, beste batek zingira bateko animalia eta landare espezieen arteko loturak azaldu ditu, beste batek eguzkitik energia nola lortu asmatzen du Benetan gauza txundigarria da heziketa jaso duen pertsonak gutxieneko bizi baldintzak izanda sor dezakeen ezagutza, asma dezakeen gauza piloa. Eta, gainera, sortutako ideia eta ezagutza horiek bere garai-kideendako bakarrik ez, etorkizuneko gizon eta emakumeendako ere baliagarri izango dira!

Gaur, milaka milioi pertsona dira euren ahalmen guzti-guztiak eguneroko miseriari aurre egiteko erabili behar dituztenak. Imajina dezagun, une batez, munduko 6.000 milioi gizakiek heziketa aberatsa jaso dugula eta bizi baldintza gutxieneko batzuk ere badi-tugula. Zer ez ote genuke asmatuko! Zer ez hobetuko!

Konturatzen ote gara gutako bakoitzak, gizarteak orokorrean eta etorkizuneko gizakiek ere, zenbat irabaziko lukeen munduko gizaki orok bizi baldintza gutxieneko batzuk eta heziketa ona izango balitu?

•

Harreman

Txatxilipurdi eta Piztu lankidetzan Euskal Herria Zuzenean jaialdian

Badira sei urte Piztu elkarteak Euskal Herria Zuzenean izeneko jaialdi erraldoia antolatzen diharduela Nafarroa Behereko Arrosa herrian. Euskal Herriko erreferente bihurtu den jaialdi honek Iparraldeko irratia eta erakunde euskaldunen alde egiteko helburu tinkoa dauka, eta horretan dihardu sortu zenetik hona. Azkenengo hiru urteotan, bailarako zenbait gaztek boluntario lanak egiten dituzte, Txatxilipurdi elkartearen bitartez, eta gazteendako zein elkarteko begiraleendako ere oso esperientzia aberasgarria izan da han lan egitea, Iparraldea hobeto ezagutu dute eta hangoekin lankidetzeta eta harremana indartu dute.

BOLUNTARIOEN AUTOBUSA

Poliki-poliki, bi talde horien lankidetzeta sendotzen joan da eta aurtengo jaialdirako, seigarrenarako, deialdi zabala egin eta boluntarioz osatutako autobus bat antolatzea erabaki dute, betiere Txatxilipurdi elkartearen begiraleek koordinatuko dutena. Herritarrei ekimena jakinarazteko eta, era berean, Euskal Herria Zuzenean jaialdia jendaurrean aurkezteko, Piztu eta Txatxilipurdi elkarteetako partaideek hitzaldia egin zuten joan den egunean Monterrongo hitzaldi aretoan.

Han azaldutakoaren arabera, Piztu elkarteak berri-



tasunekin datoz aurrean. Izan ere, orain arte jaialdia herrixkaren alboko zelaiko karpa baten barruan egiten bazuten ere, aurrean ez da karparik egongo

—agertokiak estali egingo dituzte— eta ekitaldiak herrixkan ere hedatuko dira. Seigarren aldi honetan ere jende askok parte hartzea espero dute.

ARRASATEKO KOMIKI EZ SEXISTAREN IV. LEHIAKETA

Arrasateko Udaleko Emakume Sailak, Gazteria eta Euskara Sailen laguntzarekin, Arrasateko Komiki Ez Sexisten IV. Lehiaketa antolatu du. Gaia librea izango da.

Nahi duen orok parte hartu ahal izango du. Partehartzaileak banaka edo binaka - gidoigilea eta marrazkilaria - aurkez daitezke.

Lanak aurkezteko **epaia 2001ko uztailaren 20ean**, arratsaldeko ordu bietan. Emakume Sailaren bulegoan, Arrasateko Udaletxean.


Emaitzak irailaren 28a baino lehen iragarriko dira.

Sariak:

- Lehen saria: 100.000 pezeta.
 - Emakume eta gizonen arteko aukera eta tratu berdintasuna hobeto lantzen duenaren saria: 70.000 pezeta.
 - Emakume egilearentzat: 70.000 pezeta.
 - Gazte saria: 35.000 pezeta.
 - Euskara saria: 35.000 pezeta (metakorra).
- Sari guztiei PFEZri dagokion atxekipena aplikatuko zaie.

Komiki batzuk aukeratu eta aldizkari batean argitaratuko dira.

Saritutako lanak Emakume Sailaren eskuetan geldituko dira eta lanak ustiatzeko eskubideak (kopiak egin, banatu eta saltzekoak) Arrasateko Udalarenak izango dira. Saritu gabeko lanak beren egileen eskuetan geldituko dira; hala ere, Arrasateko Udalak lanak erakutsi eta publikatzeko eskubidea izango du.



ARRASATEKO UDALA

Emakume Saila ■

Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Iturriotz kalea, 10-1 ☎ 943 77 13 34

DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Maalako Errabala, 23-2.A ☎ 943 77 05 57

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 ☎ 943 77 00 40

FISIOTERAPIA

- ANDONI ETA MARIA. BASTERRETxea Errehabilitazio Zentrua Olarte 43 Bis ☎ 943 77 03 96

GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 ☎ 943 77 14 72

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Quiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroidegian ere bai) ☎ 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ADUR odontologia institutu medikua Iturriotz, 35 ☎ 943 79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17-1 Ezk ☎ 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea ☎ 943 79 71 90
- GIPUZKOako odontologia espezialitateen zentrua. Iturriotz, 7 Bis ☎ 943 79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 ☎ 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Golz eta arratsaldez) Alfonso X. Jakintsua, 5 ☎ 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3- 1.-B ☎ 943 77 12 63

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6 ☎ 943 79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ☎ 943 79 29 95

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPIEDIA Kontzeziño, 2 ☎ 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analsi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ☎ 943 79 44 22

OSTEOPATIA

- NEREA BENGUA (Bizkarreko minak eta lumbalgia) Azoka kalea, 4 (Mobila) ☎ 659 58 66 89

PSIKOLOGIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko Kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ☎ 943 79 88 16

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ☎ 943 79 44 22

Garagartzarrak kezkatuta auzoaren etorkizunarekin



Garagartzako auzotarrek errekurtsioa jarri dute Diputazioan, Fagor Elektragailuak enpresaren zabaltze proiektua dela eta. Batetik, salatzen dute "Fagorren zabaltze proiektuan erabakiak hartzeko prozesuan, gu, auzotarrok, -kaltetuak izango garen aldetik- ez gaituztela

kontutan hartu". Bestetik, eskatzen dute "proiektuak proposatzen duen aparkaleku-irteera ez egiteko, gaur egun erabiltzen denarekin jarraituz".

KEZKAK

Kontua da Fagorren zabaltze proiektuan, besteak beste,

aurrez ikusten dela lantegia atzealdera zabaltzea (auzo alde-
ra) eta langileendako aparkaleku bat egitea, eta aparkaleku horretarako sarrera auzoaren sarreran bertan jartzea nahi dutela. Komunikabideetara bidalitako ohar batean jakinarazitakoaren arabera, auzotarrek uste dute hori horrela eginez gero, besteak beste, "zirkulazio eskerga auzora bertara joango zaiela"; baita ere "langile batzuk Fagorrek aparkatzeko jarritako esparrutik kanpora aparkatuko dituztela autoak, auzoaren sarreran edo auzoan bertan"; eta "nolako auto ilarrak egiten diren ikusita, askok harrobiko bidetik auzoa zeharkatzea nahiago izango dutela

Aramaiorako bidea hartzeko".

ERANTZUNA

Fagorrek eskaera horiei emandako erantzuna ez zen auzotarren gustukoa izan eta udalaren aurrean errekurtsioa aurkeztea erabaki zuten; batzarrak ere egin izan dituzte udalarekin. Baina "udalak ez zuen bat egin errekurtsioan aurkeztutako argudioekin eta uste du auzotarrok galdu ezezik, irabazi egin behar dugula proiektu horrekin". Atzo, berriaz, Fagorreko kontseilu sozialarekin elkartu ziren. Baina informazio hau idaztean, oraindik bukatu barik zegoen batzarra, hortaz, ezin dugu informaziorik eman.

Ikusmen urritasuna dutenendako elkarteak

AGI elkarteak, ikusmen urritasuna dutenen elkarteak, bailaran taldea ezagutaraztea gura du. Ikusmen urritasuna dutenen edo itsuen ongizatea eta gizarte integrazioa lortzea da AGIren helburua. Eta horretarako, adin guztietako gazte-

ak onartzen ditu (5-25 urte). Helduagoak diren bazkideak ere badaude, baina horiek ez dute parte hartzen ekintzetan.

Elkarteak lau programa erabiltzen ditu: laguntza eta orientazio psikologikoa, laguntza oftalmologikoa, arlo sozia-

leko garapenerako laguntza eta astialdiko heziketa.

HARREMANAK LANDUZ

Horrez gain, modu berezian zaintzen dituzte hezitzaileen eta umeen arteko harremana, eta horretarako hiru talde dituz-

te elkarteak: integrazio sozialerako programa, gurasoendako laguntza taldea eta gazteendako laguntza taldea.

AGI astelehenetik bari-kura irekitzen ditu atekak, 10:00etatik 13:30ak arte. Bestela, telefonoa 943 482589 da.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76

GURE ERRETIRATUEN OMENEZ

Joan den egunean, parte hartze handia eta giro jatorra izan ziren nagusi Erretiratuen Egunean. Musakolako kiroldegian egin zuten bazkaria eta, ohiko legez, "dekanoak" omendu zituzten: Candido Moraleja, 101 urte, eta Brigida Monje, 95 urte. Zorionak!



36KO 36AK

Hona hemen 1936an jaiotako emakumeen batzarrean parte hartu zuten 36 lagunak. Maiatzaren 12an egin zuten ospakizuna: meza, bazkaria eta dantzaldi luze eta alaia. Aurreneko batzarra izan dute, baina hain esperientzia ona izan denez, datorren urtean ere egingo dute.



UDAL EUSKALTEGIKOAK ARRASATE PRESSEN

Udal Euskaltegiko lagun piloa izan genuen bisitan joan den egunean. Hainbeste zirenez, erdia goizez etorri zen, eta beste erdia, arrasaldez. Diseinatzailearen lana gustatu zitzaion gehien: hantxe aritu ziren, eurei atera berri argazkiari begira-begira.



GORKA
ILEAPAINDEGIA
LUZAPENAK

ORDUTEGIA:
Astelehenetan itxita.
Asteartetik ostiralera:
09:30 - 20:00
Larunbatetan:
08:00 - 14:30

SOLARIUMA

Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 943 77 13 78



Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Ibilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Señalizazioak

Lonak

Erliebun hizkiak



HAUEK BAI JATORRAK!

Jakina da Arrasate herri musikazalea dela. Musika-zaletasun horren eredu, Ibai-Artek egubakoitzero antolatzen dituen kalerik kaleko emanaldiak. Astero talde bat etortzen da -batzuk Ukrainatik eta guzti-, eta azkenengoan txistulari jator hauek entzuteko aukera izan genuen.

STOP EZKONGABETASUNARI!

Iban Peñakoba, autoeskolako irakasle den aldetik, gidari fina da, eta oraingon beste seinale hura errespetatzeko unea iritsi zaio. Bere koadrilarekin, K.K. Jaurirekin, ezkondu aurreko agur-bazkaria egin zuen Armintzan, Bizkaian, eta zirkulazio seinaleak zituen petoa oparitu zioten.



50EKOAK ARABARA

Ospakizun berezia egin zuten 50eko kintoek orain dela bi aste: Laserna-Laguariara joan ziren, Arabako Errioxara, hango baserri turismo eta upeltegi batean egun pasa egitera. 24 lagun elkartu ziren.



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

“Trikiti, trikiti, orain d

Arrasateko trikitilariak ospakizun handia dute asteburu hone-tan. Urtero antolatzen dute jai egun bat urtean zehar, baina aurtengoa berezi-berezia izango da, eta bi egun, maiatzaren 25a eta 26a, izango dituzte hainbat ekintza egiteko: kalejirak, emanaldiak, bazkaria... Lagun asko daude etortzera gonbidatuak, eurek ere trikitilarien eta panderojoleen jaiarekin bat egiteko. Eta hori guztia zergatik? Arrasate Trikitilari Esko-la sortu zela 10 urte betetzen direlako aurten.

Dena dela, data hori guztiz zehatza ez dela esan beharra dago. Izan ere, eskola moduan -eta kultura elkarte moduan- badaramatza, bai, hamar urte; baina 1989koak dira aurrekariak.

Urte hartan, hainbat herritarrek kulturaren hutsunea sumatu zuten. SUDCeko hainbat kide izan ziren aitzindariak: Anton Zumalde, elkarteko orduko presidentea, eta Jesus Maria Artze, besteak beste.

Baina hazi hori ereiteko, lur eta klima egokia ere baziren: “Garai hartan, Euskal Herrian, trikitiaren “boom” antzekoa gertatu zen: *Tapia eta Leturia, Maixa ta Ixiar*... Arrasaten ez zegoen aukerarik musika hori lantzeko. Baina hemen ere euskal folklorea biziberritzeko giroa zegoen: gaiteroak zirela, txistulariak zirela, dantza taldeak...”, esaten du Eugenio Iturriotzek, ordudunik eskolaren atzetik ibili izan den arrasatear batek.

25ETIK 130ERA

Garai hartan, 25 ikasle inguruk eman zuten izena, eta trikiti ikastaroa abian jartzeko modua izan zen. Lehenengo irakaslea Kepa Junkera izan zen; baina ospetsu bilakatzen joan zen neurrian, ezin izan zuen bere lanarekin jarraitu, eta beste bat ekarri zuten. Gainera, beste faktore bat gehitu zitzaion hari: ikasle kopurua asko igo zen. Eta orduan jaio zen Arrasate Trikitilari Esko-la. Garai hartan iritsi zen Maixa Lizarribar -*Maixa ta Ixiar*-reko partaidea- irakasle lanak egitera, eta hantxe dihardu oraindik ere, beste lau irakaslearekin batera: Eider Zubillaga, Ines Osinaga, Sunahi Etxebarria eta Josune Uribarren. Ikasleei dagokienez, goraldi urte haiek igarota, 130 bat



laguneko muga ezarri zuten. Gehienak neskak dira.

Hasierako urte haiek politik izan zirela gogoratzen dute bultzatzaileek, eta ez bakarrik parte hartze handiarengatik. Ilusio handiz ziharduen lanean talde guztiak, eta ekintza guztietan nabarmentzen zen hori. “Batzordea oso jatorra zen. Batzarren ondoren, afari-merienda egiten genuen elkarrekin. Ez zen ohiko eskola; ez zen trikitia irakastea soilik”, diote orduko batzordeko kideek. Beti atzetik bultzaka ibili direnen laguntza barik, Trikitilari Eskola beharbada ez litzatekeela izango onartzen dute irakasleek: gurasoen, ikasle ohien eta ikasle izandakoen gurasoen laguntza ere



«dela 10 urtetik...»



litzateke: musikaren susta-
tzaile horiek guztiak fisikoki
elkartzea, horrek harremanak
erraztuko lituzkeelako. Baina
horretarako oztopo gehiago
izan dituzte.

Izan ere, irakasleekin nahi-
ko saltsa izan badute, are gehi-
ago bizi izan dituzte Trikitilari
Eskolakoek, egoitza dela
eta ez dela. Hasi, Ferixalekuan
hasi ziren. Gerora, alde egin
behar izan zuten. Hamar urte-
an, bost edo sei lekutan egon
da Arrasate Trikitilari Esko-
la; gaur egun, gaztetxearen
gainean dute egoitza. “Baina
aurten beste norabaitera jo
beharko dugu. Ziur, hemendik
beste hamar urtera beste lau-
pabost eraikinetatik pasa izan-
go garela!”, dio Maixa Liza-
rribarrek.

Egoitza finkoa ez izateak

zapuztu egin du Arrasate Tri-
kitilari Eskolak herriko gai-
nerako musika erakundeekin
hartu-emanak sendotzeko
ametsa: “Trikitilari Eskola fin-
katuta dago, baina Arrasate
Musikalekin, Goikobalurekin,
bertso eskolarekin, dantza tal-
deekin... bat-egite handiogo-
aren falta nabari dut”, dio
Eugenio Iturriotzek. “Guztionean
arteana musika eskola antola-
tzeko asmoa genuen; baina
azkenean ezinezko suertatu
zen”.

ALAITASUNA, NAGUSI

Oztopo txikiek ez dute ilundu
soinu txiki eta pandero jotzai-
leen kopeta. Edonora joanda
ere, umoretsu asko ibiltzen
dira, eta ez hori bakarrik, han-
goak ere alaitu egiten dituzte.
Eurek esaten dutenez, Euskal

«Edonora joanda ere, umoretsu
asko ibiltzen dira trikitilariak, eta ez
hori bakarrik, hangoak ere alaitu
egiten dituzte»

hor izan dute beti.

ELKARTASUNA

Jatortasun hori beste elkarte-
ekiko harremanak estutzera in-
o hedatu zen. Irteerak anto-
latzen zituaztenean, bertso esko-
lakoak, dantza taldeetakoak
eta, oro har, Arrasaten euskal
folklorean eta musikan lan
egiten zuten guztiak izaten
zitezuten lagun. Musika ema-

naldiak ere beste batzuekin
batera egiten zituzten: gaiter-
roak, Arrasate Musikal...
Elkartasun horrek bazuen bere
zergatia: euskal kulturaren eta
musikagintzan sakontzeko
filosofiarekin zen jaioa Arra-
sate Trikitilari Eskola, eta,
ondorioz, giro horretako herri-
ko beste edozein elkarterekin
harreman zuzen-zuzena zuen.
Azken erronka hauxe izango





Herritik kanpo, leku askotan, soinu txikiaren eta panderoaren hotsek harridura sortzen dute, baina baita ondo erakarrri ere! Horren harira, esperientzia gogoangarriak bizi izan dituzte. Esaterako, iaz, udan, Austriara joan ziren,

hango folk jaialdi batera gonbidatuta. Eskola moduan egiten zuten lehenengo irteera izan zen.

AUSTRIAN

Austriarrak liluratuta utzita, haiek ere liluratuta etorri ziren:

“Argazki bakoitzak oroitzapen atsegin bat ekartzen digu. Guztiaz gogoratzen gara: une bakoitzean non izan ginen, zeinekin, zer egin genuen... Aurten joatekotan geratu ginen”, esandu Maixak. Orain, jaialdiko antolatzaileen deia-

ren zai daude. Hala ere, irakasle honen esanetan, soinu txikiak Euskal Herritik kanpo bizi duen goraldia ez da atzo goizeko kontua.

Edozelan ere, bidaiak luzeak egin barik, pozik egoteko arrazoirik ez zaie falta Arrasate Trikitilari Eskolakoiei. Une onenak, irakasleen esanetan, txapelketetan parte hartzen dutenean, jaietan irteten direnean, irratiren batean jotzeko dei egiten dietenean, grabaketak egiten dituztenean (*Ines eta Naiara* bikoteak egin zuen bat)... Baina ekitaldi handietara jo beharrik ez dago une atseginak topatzeko. Oraingo asteburuan bertan dute horretarako aukera paregabea, eta baita datozen hamar urteotarako topa egiteko aukera ere.

Leire Kortabarria

ARGÍ-PLASTIC

Leihoen fabrikazioa, P.V.C, aluminioa eta poliuretanoa
 Zigorrola, 1 8. Pabeiloia
 Tel.: 943 77 11 30
 ARRASATE

Saskibaloia kalean



Estatu Batuetako hainbat hiritan saskibaloia kalean ikustea ohikoa bada ere, Arrasaten saskibaloitxapelketak Iturripen edo Musakolan jokatzeko dituzte. Arrasate Kirol Proiektuak eta Arrasate Saskibaloit

deak harantzago eraman gura izan zuten saskibaloia, eta aurreko zapatuan 3x3 txapelketaz gozatzeko aukera izan genuen. Eguraldi onak lagun, 250 neska-mutikok parte hartu zuten 3x3 txapelketan, eta

musika, saskibaloia eta jokalaritza gazteak izan ziren protagonista nagusiak. Eneko Gorostidiren esanetan, aurreko urtean baino gusturago geratu dira eta gazteen erantzuna bikaina izan da.

Eneko Pou Monterronen

Besaideko Mendi Astea dela eta, hainbat hitzaldi eta argazki erakusketaz gozatzeko aukera izan dugu. Ekitaldi guztiak Monterronen izan dira, eta guztiak erantzun ezin hobea izan badute ere, martitzenean, Eneko Pou muturreko eskiaren gainean berba egitera etorri zenean, Monterrongo areto nagusia lepo bete zen. Ehun lagun baino gehiago hurbildu zen, gazte horrek mendian bizi izanda-



ko abenturen gainekoak entzuteko asmoz, eta argazkierik, profesional batek ateratakoak ez baziren ere, gehienetan, sentsazio bereziak eragiten zituzten. Argazkietan, Midi d'ossau, Peña Telera, Gavarni, Monte Perdido eta Tromouseko parajeekin gozatzeko aukera izan genuen, eta horrelako jaiak egin gura dutenek kontuan hartzeko gomendioak jaso zituzten.

Gipuzkoako taldekako txapelketa

Aurreko asteburuan, Arrasate Kirolak atletismo taldeko gazteak Anoetan izan ziren Gipuzkoako taldekako txapelketa jokatzeko. Besteak beste, 4x100 proban arrasatearrak bigarren izan ziren, zilarra eskuratuz. Taldea Martin Davila, Unai Sarabia, Angel Rivera eta Mikel Apraizek osatzen dute. Horiez gain, Angel Riverak 100 metroetako lasterketan (11"50), eta Unai Sarabiak 200 metroetako lasterketan (22"50) emaitza azpimarragarriak lortu zituzten. Arrasateko taldea bosgarren izan zen, eta emaitza txarra ez bada ere, taldeko zuzendari Fernando Zufiriaren ustez, asko nabaritu da atleta berrien etorrera. Gaur egun, Euskal Herriko sailkapen nagusian Arrasateko taldea zortzigarrena da, eta Gipuzkoako sailkapenean, bosgarren. Arrasate Kirolak taldeko gazteak ezin izan zuten dominarik ekarri Zumarragan jokatu zen infantil mailako Gipuzkoako txapelketatik. Etxeko taldeko emaitza onena Jokin Gonzalezek lortu zuen, pisu jaurtiketan 8,87 metro jaurtita. Horrez gain, Ander Trojaola bosgarren izan zen 80 metro hesietan, 15"02 denbora eginez, eta Lander Errastik ere postu bera egin zuen luzerako jautsian, 4,77 metro salto eginez.



Gambrinus
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak

Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

Sukalde altzarien fabrika eta horman sartutako armairuak

Super
Armeko

- Fabrikako prezioa
- Erakusketak zabala. 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Azken berrikuntzak

Kataide Industrialdea, 6. pabilioia
ARRASATE • Tel.: 943 71 25 08

AZKEN JAIA

Arrasate Kirol Proiektuko X. urtearen amaiera heltzear da. Hamargarren urteurrena bete duen denboraldi honetan sekula baino partaidetza zabalagoa lortu du proiektuak, eta taldeek, maila guztietan, neurri ona eman dute, hainbatek Gipuzkoako txapelketa txukuna eginez, batzuek oraindik euren ibilbidea bukatu ez duten arren.


Hamargarren urteurrena ospakizun urtea ere izan da, eta hori dela-eta, ekintza ugari antolatu da: Reala-Osasuna futbol partidua; Tau Baskonia-Askatuak eta Bakomat Araba-Parque Comercial Txingudi saskibalo partiduak, zeinetan ikasleen partaidetza goraiatzekoa den, ikastetxe guztien inplikazioarekin batera.

Azken jaia, ohitura bihurtzen ari den moduan, Iturripeko kiroldegian hasiko da, handik abiatuko baita goizeko 10:00etan bizikleta martxa Aramaiora bidean. Behin Aramaion arnasa hartuta, Arrasatera itzulera, eta helburu Arrasateko herriko plaza izango da. Hantxe jarraipena izango du jaialdiak, irabazleei garaikurrak banatu eta partaide guztien artean, zozketa bidez, hainbat opari banatuaz. Horrekin guztiarekin batera, sorpresak ere izango dira, hala esan digute, behintzat, antolatzaileek.

Ekitaldi nagusi hori 12:00etan hasiko da.

HERRIKO PLAZAn

MAIATZAK 26, ZAPATUA



10:00etan

BIZIKLETA IBILALDIA

Iturripe - Aramaio - Herriko plaza

Kaskoa eramatea derrigorrezkoa da !!!


12:00etan

EKITALDI NAGUSIA

- DOMINA ETA GARAIKURREN BANATZEA
- SARI-ZOZKETA MUNDIALA

• SORPRESAK

GONBIDATUTA ZAUDETE!!!!!!



WERU®

WERU®
Ate + leihoak



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tel.: 943 79 24 12 eta 943 79 97 95
ARRASATE



Salterain

PVC-zko ate eta
leihoez gain:
moketak,
zoru arinak,
kortxoak,
Louverdrape
kortinak,
Kortinoba, testila...

A Taldea	JOK.	IRAB	GALD	E.A.	T.ALDE	T.KON	DIFERE	PUNT
1. MUXI-ULLI	1	1	0	0	22	8	+14	2
2. TORIBIO-PI	1	1	0	0	22	8	+14	2
3. IÑIGO-ISTURIZ	1	1	0	0	22	11	+11	2
4. EIMON-ZARRE	1	1	0	0	22	12	+10	2
5. HARITZ-URKO	1	0	1	0	12	22	-10	1
6. SAIZAR-PON	1	0	1	0	11	22	-11	1
7. JOSEBA-JOSU	1	0	1	0	8	22	-14	1
8. BOLING. I-KARNI	1	0	1	0	8	22	-14	1

D Taldea	JOK.	IRAB	GALD	E.A.	T.ALDE	T.KON	DIFERE	PUNT
1. AITOR-OIER	1	1	0	0	22	1	+21	2
2. BERMU-BIU	1	0	1	0	1	22	-21	1
3. TXELO-XABI	0	0	0	0	0	0	0	0
4. ASIER-URTZI	0	0	0	0	0	0	0	0
5. LUR-LAGAR	0	0	0	0	0	0	0	0
6. BULL-PIRULO	0	0	0	0	0	0	0	0

B Taldea	OK.	IRAB	GALD	E.A.	T.ALDE	T.KON	DIFERE	PUNT
1. GAIZKA-BOLUDO	3	2	1	0	61	49	+12	5
2. BOLING. II-BEX	2	1	1	0	34	22	+12	3
3. GAIZKA-UGUTZ	1	1	0	0	22	17	+5	2
4. MARKEL-UNAI	1	0	1	0	15	22	-7	1
5. OTUTO-ARANBU.	0	0	0	1	0	22	-22	0
6. PIRU-MUTXIN	0	0	0	0	0	0	0	0

E Taldea	JOK.	IRAB	GALD	E.A.	T.ALDE	T.KON	DIFERE	PUNT
1. GORKA-HAYMAR	3	3	0	0	66	36	+30	6
2. CARBONI-TITINO	1	1	0	0	22	13	+9	2
3. CARLOS-UNAI	2	0	2	0	22	44	-22	2
4. ASIER-GORKA	1	0	1	0	18	22	-4	1
5. KASKO-IRA.	1	0	1	0	9	22	-13	1
6. GARI-IGORTZ	0	0	0	0	0	0	0	0
7. TXETXI-SKRITX	0	0	0	0	0	0	0	0
8. ARGIDER-IBAN	0	0	0	0	0	0	0	0

HURRENGO PARTIDAK:

A			
TORIBIO-PI	vs	BOLINGAZO I-KARNI	Maiatzak 26 15:00 Uarkape
EIMON-ZARRE	vs	JOSEBA-JOSU	Maiatzak 26 15:30 Uarkape
IÑIGO-ISTURIZ	vs	HARITZ-URKO	Maiatzak 26 16:00 Uarkape
MUXI-ULLI	vs	SAIZAR-PON	Maiatzak 26 16:30 Uarkape
MUXI-ULLI	vs	JOSEBA-JOSU	Maiatzak 27 11:30 Uarkape
IÑIGO-ISTURIZ	vs	BOLINGAZO I-KARNI	Maiatzak 27 12:00 Uarkape
EIMON-ZARRE	vs	SAIZAR-PON	Maiatzak 27 12:30 Uarkape
TORIBIO-PI	vs	HARITZ-URKO	Maiatzak 27 13:00 Uarkape

B			
PIRU-MUTXIN	vs	BOLINGAZO II-BEX	Maiatzak 26 10:00 Uarkape
GAIZKA-BOLUDO	vs	GAIZKA-UGUTZ	Maiatzak 26 10:30 Uarkape
OTUTO-ARANBURU	vs	MARKEL-UNAI	Maiatzak 26 11:00 Uarkape

D			
ASIER-URTZI	vs	BULL-PIRULO	Maiatzak 26 11:30 Uarkape
TXELO-XABI	vs	AITOR-OIER	Maiatzak 26 12:00 Uarkape
BERMU-BIU	vs	LUR-LAGAR	Maiatzak 26 12:30 Uarkape

E			
TXETXI-SKRITX	vs	CARLOS-UNAI	Maiatzak 26 17:00 Uarkape
GORKA-HAYMAR	vs	GARI-IGORTZ	Maiatzak 26 17:30 Uarkape
CARBONI-TITINO	vs	ARGIDER-IBAN	Maiatzak 26 18:00 Uarkape
KASKO-IRAULTZA	vs	ASIER-GORKA	Maiatzak 26 18:30 Uarkape
TXETXI-SKRITX	vs	KASKO-IRAULTZA	Maiatzak 27 09:30 Uarkape
GORKA-HAYMAR	vs	ASIER-GORKA	Maiatzak 27 10:00 Uarkape
GARI-IGORTZ	vs	CARBONI-TITINO	Maiatzak 27 10:30 Uarkape
CARLOS-UNAI	vs	ARGIDER-IBAN	Maiatzak 27 11:00 Uarkape

Lasaitasun larregi?

Badirudi bikote asko lasai ibili dela asteburuan partidu bakarra jokatuta, dirudienez, bikote askok nahiago dute aste barruan jokatzeari. Umore ona ere protagonista izan da lehen partiduetan. Norgehiagoka batean, bikote bateko atzelariak eskuak poltsikoan sartu eta lagunak nola ateratzen zuen begira gelditu zen. Aurkariak errespetu pixka bat izateko eta eskuak poltsikotik ateratzeko eskatu zion. Hark, zur eta lur, arreta osoz jokatu zituen azken tantoak.

EMATZAK 1. JARDUNALDIA

A TALDEA

TORIBIO-PI 22 JOSEBA-JOSU 8
EIMON-ZARRE 22 HARITZ-URKO 12
IÑIGO-ISTURIZ 22 SAIZAR-PON 11
MUXI-ULLI 22 BOLINGAZO I-KARNI 8

B TALDEA

GAIZKA-BOLUDO 22 MARKEL-UNAI 15
GAIZKA-BOLUDO 17 GAIZKA-UGUTZ 22
GAIZKA-BOLUDO 22 BOLINGAZO II-BEX 12

D TALDEA

BERMU-BIU 1 AITOR-OIER 22

E TALDEA

GORKA-HAYMAR 22 KASKO-IRAULTZA 9
CARBONI-TITINO 22 CARLOS-UNAI 13
GORKA-HAYMAR 22 ASIER-GORKA 18
GORKA-HAYMAR 22 CARLOS-UNAI 9

Emaitzak

Iriztu 5 - Komando Alpargat 5
 Rayo Aldeano 4 - AC Surcos 2
 Irati STS 7 - Kamasutra 4
 YK Azkena 4 - Aurrera Bolie 5
 Usotz Potroak 0 - Pepelus.com 2
 Bikain Akad 4 - Txap Dribling 7
 AT Celaya 3 - Goma2 9
 Etixerat 4 - IKP 2

Sailkapenak

A taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Iriztu	2	1	1	0	11	9	3
Rayo Aldeano	2	1	0	1	8	8	2
AC Surcos	2	1	0	1	8	8	2
Kom Alpargat	2	0	1	1	9	11	1

B taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Irati STS	2	2	0	0	10	5	4
Kamasutra	2	1	0	1	9	11	2
Aurrera Bolie	2	1	0	1	9	9	2
YK Azkena	2	0	0	2	5	8	0

C taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Txap Dribling	2	2	0	0	13	8	4
Bikain Akad	2	1	0	1	10	11	2
Pepelus.com	2	1	0	1	10	11	2
Usotz Potroak	2	0	0	2	4	8	0

D taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Etixerat Taberna	2	2	0	0	11	2	4
IKP	2	1	0	1	9	7	2
Goma2	2	1	0	1	12	10	2
AT Celaya	2	0	0	2	3	16	0



PARTIDU EZIN ERABAKIGARRIAGOAK

Oraingo asteburuan gauza asko argituko dira Zaldibarren. Oraindik ez da talderik sailkatu hurrengo aldirako, nahiz eta Irati STS, Txapime Dribling eta Etixerat taldeek besteek baino errazago daukaten. Era berean, ezin daiteke esan talde batzuk dagoeneko kalean daudenik, baina YK Azkena, Usotz

Potroak eta AT Celayak benetan zail daukate. Aipagarria da AT Celayaren kasua, izan ere, txapelketan, eta ez aurten bakarrik, argi eta garbi erakutsi dute txapeldun izateko adina jokatzeko dutela, baina horrelako txapelketa batean futboleko ondo jokatzeari gain, beste gauza asko izan behar dira kontuan, eta azken horietan badirudi kale egiten dutela. Jeneralean, partidu interes-

garri eta erakargarrienak zeintzuk izango diren aurreratzen dizuegu, nahiz eta batzuetan asmatu ez, baina oraingo astebururako ezin horrelakorik idatzi. Hau da, areto futbola eta emozioa atsegin badituzue, Zaldibarrera edozein ordutan joanda ere, seguru gozatzeko aukera izango duzuela, izan ere, talde batek ere ez dauka hurrengo aldirako txartela ziurtatua.

Hurrengo partidak / 2. aldiko 3. jardunaldia

Maiatzak 26, zapatua

Zaldibar

11:50 YK Azkena - Kamasutra

13:00 Txapime Dribling - Usotz Potroak

15:50 AT Celaya - IKP

17:00 Irati STS - Aurrera Bolie

18:00 AC Surcos - Iriztu

Epailea

Antolakuntza

Antolakuntza

Antolakuntza

Antolakuntza

Antolakuntza

Maiatzak 27, domeka

Zaldibar

10:50 Pepelus.com - Bikain akademia

12:00 Komando Alpargat - Rayo Aldeano

13:00 Etixerat Taberna - Goma2

Epailea

Antolakuntza

Antolakuntza

Antolakuntza



**Igor Zuazabiskar
Dr. Rude dendakue**

Hogeita sei urteko gazte honek badaki zer dan lan egittie. Fagorren zortzi ordu lanien jardutiaz gaiñera, gauza da erropa denda bat aurrera atarateko, nahiz-eta hasierie oso gatxa izen. Dendie estilo konkretu bat asetzeko zabaldu euen, gaztiak kanpora jueten zien-eta erropa klase hori eroatera.

Esaidazu guzur bat.

Bizitza hau oso errexu da.

Amets bat.

Danok bakien bizitzie.

Amesgaizto bat.

Ez dauket amesgaiztorik.

Egin dozun azken biajie?

Uf! Akordau be ez naz egitten.

Txartel horixe, zeñiñ?

Herrixen egitten dabitzen obrei, hautsa besterik ez dago-eta.

Eta txartel gorrixer?

Aparkalekuei.

Film bat? Liburu bat? Disko bat?

Trainspotting/El mundo de Sofia/ Asko. Lauren Lorenzo Aitken, adibidez.

Gustora egitten dozu zeure lana?

Bai, oso gustora, nahiz eta askotan gogorra izeten dan.

Dendari ez baziña, zer izengo zitzaie?

Elektrizista.

Animalixe izetekotan, zer?

Katue.

Drogak legeztatuko zenituzke?

Bai.

Eta prostituziñue?

Baita be, nahiz-eta drogak baiño hobeto ikusitte dagoen.

Tabernetako poteue ala diskotekak?

Momentu bakotxien, bata edo bestie.

Etxeko zapatillak ala zapatak?

Zapatak, edo botak... Marteens botak adibidez.

Zer gustetan jatzu Arrasatetik?

Parajie.

Alkate izengo baziña, zer hobetuko zeunke?

Azken barrittasunak ondo egon die, baiñe ondiokan badago zer hobetu.

Eta lehendakari izengo baziña?

Bueno, hortxe ez naz sarten, gauza larregi dago hobetzeko, eta oso gatxa da ezer hobetzie.

Bizio bat?

Ezebe ez egittie.

Zer erizten dotsezu Arrasate Press Goienkaria barruan sartzari?

Oso idea ona dala.

Zer gehittuko zeunke Arrasate Pressen? Eta zer kenduko zeunke?

Ondo dago, baiñe beti dago zer gehittu. Kendu, ez neuke ezer kenduko.

Gustoko mendi bat?



"Egunero telebistan ikusten dittugunak baiño, izkutuen egoten dan jentia izaten da interesantiena"

Anboto.

Bizitzera hiri batera juetekotan, nora?

Donostiara edo Gasteizera.

Zure bizitzan ezagututako pertsona interesgarri bat?

Pertsona interesgarri asko ezagutu dittut.

Eta ezagutu nahiko zeunkeena?

Musika talde batzuetako partaidiek.

Desleiala izetekotan, zeñekin?

Hobeto desleiala ez izetie.

Telebista saio bat? Irratsaio bat?

Telebista eta irrati gutxi ikus-entzuten dot.

Arropa marka bat?

Fred Perry.

Zertan gastauko zeunke dirue?

Biaje bat egingo neuke, aspaldi ez dot-eta Mondragoetik urten.

Jasaten ez dozun zerbait?

Hipokresia.

Vanessa Sanchez: «Nik Euskal Herriaren publizitatea egiten dut»

Beharbada, ikusten duzuen musu hori ezagun egingo zaizue. Eta izan ere, halaxe da; EITB-rendako egiten du lan Vanessa Sanchezek eta behin baino gehiagotan ikusi izan dugu kamera aurrean.

Jaiotzez arrasatearra da, baina Gasteizen bizi izan da. Gaur egun, berriz, Parisen bizi da, hango berriemailea da eta. Urte eta erdi darama lan hori egiten eta zelan moldatzen den galdetu diogu:

— **Zer moduz bizi zara?**

— Oso gustura, baina noizean behin etxera joateko beharra izaten dut. Hiri handiek abantaila asko dituzte (izugarriko kultura eskaintza, hainbat gauza egiteko...), baina, era berean, distantziak oso-oso handiak dira, jendea ez duzu hain erraz topatzen, edo lagunak kalean... Nik, esaterako, kalera irteera faltan sumatzen dut, lagunak agurtzea izkina batean eta handik 100 metro-ra beste norbaitekin elkartu eta "aupa" esatea...

— **Berriemaile lanak betetzen dituzu. Zelakoa da hori?**

— Oso interesgarria; hainbat gai lantzen ditut eta ez arlo bakarra, gainera. Baina, lehen esan bezala, distantziak izugarriak dira eta batzuetan eromena izaten da, batez ere, beti leku batetik bestera ibili behar naizelako eta denbora galtzen dugu autoan, batzuetan motoan... leku batetik bestera joateko, askotan ordubeteko bidaia daukat.

— **Zelan hartzen zaituzte han, Euskal Herriko komunikabide baten ordezkari zarela esatean?**

— Gehienek ez dakite EITB esistitzen denik, baina behin azalduta, interesgarria iruditzen zaie, beti galderak egiten didate eta nik, bide batez, Euskal Herriaren publizitatea egiten dut (barreak).

— **Orain Korsikara zoaz...**

— Bai. Autonomia proiektu bat eztabaidatzen ari dira, eta hara noa hango errealitatea ikusi eta gero zuei kontatzeko.

— **Zelan jasotzen eta ulertzen dute Parisen hementiko errealitatea?**

— Ez dakit askorik ulertzen duten. Frantzia oso estatu zentralista da eta autonomiek beldurra-edo ematen diete batzuei eta beste batzuek ez dute ondo ulertzen.


Zoritxarrez, gainera, hona etortzen diren berri bakarrak atentatuen gainekoak izaten dira... Hori bai, nik uste dut Euskal Herriaren gaineko gero-ago eta erreportaje gehiago ematen dituztela eta batzuk, behintzat, saiatzaren direla euskal gatazkaren alde guztiak jakinarazten.

— **Zelan jarraitu dituzte hauteskundeak?**

— Kazetari asko joan da hara, eta, orokorrean, nahiko ondo jarraitu dituzte hauteskundeak. Esaterako, oso ondo bereiztu dituzte Euskal Herrian dauden sentsibilitate desberdinak eta baita PPK eta PSO-Ek izandako jarrera ere. Nire ustez, apurka-apurka, hementiko jendea ari da hura ezagutzen.

— **96an ere izana zara Parisen, baina beste zerbaitegatik: dantzari-edo... ?**

— Bai, betidanik izan naiz dantzaria. Amarengatik hasi nintzen dantzan, Arrasate



«Nire bizitzan beti sorkuntza edo fikzio puntua sartu behar ditut»

Musikaleko balet eskolan nire izena eman zuen sei urte nituela. Gero, Gasteizen dantza klasikoa ikasi nuen eta unibertsitate bukaera aldean dantza garaikidearekin hasi nintzen. 1996an, berriz, frantsesa ikastera joan nintzen Parisera eta han eskola ugaritan izan nintzen. Oso serio hartu nuen gai hori eta turismoko agentzia batean lan egiten nuen bitartean, bigarren urtean, hainbat eskola hartu nituen; halaber, Belgikako eskola batean izena ematen saiatu nintzen, baina ez ninduten hartu... Edozelan ere, oso esperientzia polita izan zen, asko ikasi nuen eta, gainera, dantza egiteko goinoa nuen...

— **Gaur egun jarraitzen duzu dantza egiten?**

— Ezin dut, ikastaroak ez dituzte oso berandu egiten eta askotan lana izaten dut. Baina horren ordez antzerkia egiten dut... nire bizitzan beti sorkuntza edo fikzio puntua sartu behar ditut.

— **Gogoan duzu zuk emandako albiste politen bat?**

— Oso gustura eman nuen, esaterako, aurtien Euskaltelek Tourrean parte hartuko duen berria. Bestela, oso gustura egiten ditut, adibidez, erreportajeak, Paris jendeari erakustea, herritarren giroa...

Zinemagileak zinemaz berbetan



Euskal industria zinematografikoa sendotzea posible izango ote den edo ez, horixe da datorren eguaztenean egingo den mahai inguruaren gaia: *Euskal zinemagintza, posible ala zientzia-fikzio?* Zinema barrutik bizi duten luxuzko hiru lagun izango ditugu horretaz berba egiteko: Jon Andueza gidogile eta zinemagilea, Anabel Arraiza aktorea eta Eneko Olasagasti zinemagile eta ekoizlea.

Hitzordua Monterronen izango da 19:00etan, AEDren eskutik.

ASPALDIKO EZTABAIDA

Aspaldikoa da euskal zinemagintzaren gaineko eztabaida. Zer baldintza bete behar ditu film batek euskal zinemaren eredu hartzeko? Batzuen ustez, nahikoa da zinemagileak Euskal Herrikoak izatea; beste batzuek, aldiz, zinemagile horiek euskaldunak direla baina Madrilan lan egiten dutela argudiatzen dute. Horrez gain, Euskal Herrian industria zinematografiko indartsua eraikitzeko baliabiderik ba ote dagoen kezka ere bada.

Artista berriendako, aukera onena

Iturriotz kaleko Harresi aretoan erakusketa berezia dago: 57 artistaren lanak, denetariko teknika eta gaiak hartuta. Gazteenak 17 urte ditu, eta nagusienak, 60 inguru: Monterrongo margo ikastaroko ikasleak dira. Urtero moduan, ikastaro bukaera aldera euren lan onenekin erakusketa antolatuta dute.

OLIOA ETA AKUARELA

Teknika aldetik olioa da nagusi

si erakusketan, baina akuarela batzuk ere ikus ditzakegu. Gaiari dagokionez, ikasle bakoitzak bere gustukoak irudikatu ditu. Paisaiak, bodegoiak, giza irudiak, eta abstrakturen bat zehin beste ere aurkituko ditugu.

Ikasle gehienak arrasatearrak dira, baina badago atxalbaltarren bat ere. Batzuk bi edo hiru urte daramatzate ikastaroan; beste batzuk aurten hasi dira.



Jesusi Etxebarriaren ikasleak, kontzertuan

Jesusi Etxebarria arrasatearrak zuzentzen duen musika-akademiko ikasleek kontzertua emango dute ekainaren 1ean. Ikasturteari probetxua atera diotela erakusteko aukera izango dute. San Frantzisko Xabier ikastolaren aretoan izango da, 18:30ean.

BOST MUSIKA-TRESNA

Bost urtetik 18ra bitarteko 40 bat ikaslek esku hartuko dute, hainbat musika-tresna landuz: pianoa, akor-

deoia, gitarra elektrikoa eta klasikoa eta txistua; eta batzuek euren ahots hariak izango dituzte musika-tresna bakar moduan. Ordubete inguruko entzunkizuna izango da, eta tresna horiei guztiei tartea emateko, pieza laburrez osatua egongo da. Jesusik komentatu digunez, ikasle guztiek ere "jo eta su dihardute lanean, egundoko ilusioaz". Urteroko hitzordua izateak ez die, antza denez, urduritasuna kentzen.



S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikari erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

ILE APAINDEGIA

Alfonso X jakintsua, 1 behea
(Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65

BASATI
TABERNA

PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK

TLF. 943 711762

ANGER (MUSIKA TALDEA)

«Disko etxeek, gaur egun, ez dute talde berrien aldeko apusturik egiten»

1997an sortu zen Anger, Musakolako punk-metal edo hardcore-metal taldea: «Bortizkeria eta lasaitasuna bat egin da», euren dioten moduan. Arkaitzek, Ekainek, Albertok, Beñatek eta Lopezek osatzen dute Anger. Elkarrekin jotzen eta konposatzen hasi ziren, eta gustua hartuta, geroago eta sarriago eta serioago hartu zuten zaletasun hori... harik eta maketa grabatu arte. Oraingo astean kaleratu da bilduma hori.

— Kalean da, azkenean, zuen lehenengo maketa.

— Bai. Zuhaitz lehorra eraiten da izenburua eta bost abesti ditu. Oraingo, tabernetan, gaztetxean eta inguruko herrietan ipiniko dugu salgai.

— **Iaz grabatu zenuten. Zer dela eta urtebeteko hutsune hori?**

— Gauza asko izan dira tartean. Batik bat, parte hartu dugun bi lehiaketak, Euskadi Gaztea irratiko maketa lehiaketa eta Bilbo Hiria Rock lehiaketa hain justu ere; eta, gainera, finantzaketa arazoengatik. Guk ekoiztutako maketa da. Azaleko marrazkia Julen Ribasek egin du, eta logoa, Gorka Zubizarretak. Diseinua oso deigarria dela esan digute.

— **Zaila da maketa grabatzea lortzea?**

— Dirua izanez gero, erraza da; hori da gakoa, dirua. Disko etxeek, gaur egun, ez dute talde berrien aldeko apusturik egiten. Egun, talde batek diskoa grabatzea lortu orduko, kontzertu ugari eman eta pare bat maketa-edo grabatu behar izan ditu aurretik.

— **Lehiaketetan pozik egoteko moduko emaitzak izan dituzue...**

— Euskadi Gazteko maketa lehiaketan entzuleen bigarren saria lortu genuen.



Bilbo Hiria lehiaketan, 1.100 bat talde aurkeztu ziren, Europa osokoak; horien artean, musika estilo bakoitzeko banaka batzuk sailkatzen dira; metal arloan, hamabi batek lortu genuen fase horretara igarotzea. Egia esan, oraingo astean bukatzen da, eta zain gaude; oraindik badugu aukerarik, nahiz eta ez dugun ezer espero. Bizi izandako esperientzia baloratzen dugu gehienbat.

— **Eta abestien gaiei dagokienez?**

— Gizarteari kritika egiten diogu, baina ez gara talde «panfletario» horietako bat. Maketaren izenburuak ere badu horrekin zerikusirik: zuhaitz lehorrak, betidanik hor izan denak, hau da, sistema, gizarteak... hortxe tinko jarraitu gura duela. Gizartean pasibotasuna zabaltzeko modua da. Beti izan dira interes batzuk, eta hortxe segitzen dute oraindik ere. Horregatik deitzen da taldea Anger: ingelesez, haserrea, gorrotoa.

— **Zeintzuk dira zuen ametsak?**

— Oraindik orain, disko bat atera gura

genuke. Eta jotzea, hori bai, jotzea, Euskal Herrian eta kanpoan... Gure esparrua zabaltzea. Sorgin-gurpila da: zuzenean sarritan jotzen baduzu, diskoa ateratzeko prest zaudela eta erraztasun handiagoa duzula ematen du. Eta, alderantziz, diskoa ateratzen baduzu, emanaldi gehiago egiteko moduan zaudela dirudi...

— **Hortaz, maketarekin eta lehiaketan ondoren, gehiago jotzeko aukera izan beharko zenukete...**

— Hala izan dadila, bai! Oraingo, lehen bezainbat zuzeneko ematen ari gara. Batik bat, lehiaketan ondoren sumatu genuen pixka bat gehiago jotzen hasi gine-la.

— **Zelan ikusten duzue Debagoieneko musika eszena?**

— Ondo, oso ondo. Denetarik dago. Geroago eta talde gehiago, eta geroago eta hobeak. Batzuk nabarmentzekotan, *Fase Terminal*, *Spank...*, gu baino gazteagoak direnak. Gure adinekoak, *Kañeria 13*, *Numen...* asko dago.

«Egun, talde batek diskoa grabatzea lortu orduko, kontzertu ugari eman eta pare bat maketa-edo grabatu behar izan ditu aurretik»

Herria Mugi jardunaldiak



Maiatzaren 19eta 20an, Herria Mugi ekimenak Herri Mugimenduen III. topagunea antolatu zuen Barriako aterpetxean. Topagune horretan gizarteko hainbat arlotako kideak bildu ziren elkar ezagutu eta esperientziak elkar trukatzeko.

Komunikazioa izan zenez topagunearen ardatz nagusi, domekan, irratigintza tailerrera deialdia jaso zuten Euskal

Herriko hainbat irratik. Gonbitearekin bat egin zuen Arrasate Irratiak, eta Barriaraino hurbildu ziren hiru ordezkari. Han Herriko Molotof irratia, Bergarako Txapa irratia, Bilboko Tas-Tas, Gasteizko Hala Bedi eta beste hainbatekin elkatu ziren, komunikabideen egoera aztertu eta etorkizunari begira proposamenak egin eta bul-tzatzeke.

Igo Autobusera

107.7ko autobusak makina bat kilometro egin du dagoeneko, baina datorren asterako ere gordailua beteta izango du, autobuskada bat kontu ekartzeko; astelehenean, esaterako, pearing eta tatuajeak egingo ditugu Mentxurekin. Martitzenean, Debagoiena zeharkatzen zuen trenaren ibilbidea gogoratuko dugu. Eguaztenean... Piztu 107.7a.

Iluntzean berriketan

(Egunero, 19:30ean)

Datorren astelehetik aurrera, saio berri bat izango dugu Arrasate Irratian: *Iluntzean Berriketan*. Almeneko ikasleek gidatutako saioan, RIP, Uga, Serial Number, Etsaiak, Ekon... musika taldeak elkarriketatuko dituzte. Baina ez dute musika bakarrik landuko: telesailak, kirolak, euskara...

kontzertuak

BERGARAKO JAM ETA GO-JAMEKO KONTZERTUETARAKO SARRERAK.

Maiatzak 31: **Soulfly+Kop (2 sarrera)**
Ekainak 1: **7 notas 7 colores+Dj Vadim (2 sarrera)**
Ekainak 2: **Ipar haizeak dance party (2 sarrera)**

Egun hauetarako **SARRERAK** zozketatuko ditugu. Azken eguna: datorren egubakoitza. Zozketa Arrasate Irratian egingo da.

Izen-deiturak:

Tel.:

Zein Kontzertu?

Bidalari gurera: Arrasate Press, Otarora 31 edo deitu Arrasate Irratira: **943 71 17 31**.

arrasate
irratia



ASTELEHENA - OSTIRALA

09:00 Egunon Arrasate eta prentsaren errepassoa.
09:55 Eguneko hitzorduak.
10:00 Igo autobusera I.
11:00 Albistegia.
11:15 Igo autobusera II.
12:30 Agenda, eskelak...
12:45 Albistegi nagusia.
14:00-18:00 Errepika.

ASTELEHENEAN

20:00 Jokoz Kanpo.
21:00 Draxtor.
22:00 In Session.

MARTITZENEAN

20:00 Hi bizi hadi.
21:00 Jakidiplost.

EGUAZTENEAN

20:00 Binilo ordua.
21:00 KK2A.

EGUNEAN

20:00 Ostegun-Ero.
21:00 Arakatzen.

EGUBAKOITZEAN

20:00 Planing Prest.
21:00 Kale Doinuak.

ZAPATUAN

10:00 Bihurrikerietan.
11:00 Musika klasikoa.
12:00 Bi zoro ta zu.

HIES BERRI

Tel.: 943 79 26 99

Lore

• Lurrindegia • Kabina •
• Fotodepilazioa •

Olarte kalea, 10 • Tel.: 943 79 52 50

PEUGEOT
Salmenta eta
zerbitzua

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE



Maixor etxearen aurrean dago aterata oraingo aste-ko argazki zaharra, Zerkaosteta kalean hain justu. Maixor etxea Resustarena zen orduan, Cerrajerako

goi karguena. Etxea oso zahar-
kitua zegoen azkenerako, eta
saltzea erabaki zuten. Gero,
denboralditxo batez ikastola-
ren aldeko taberna ipini zuten,
70eko hamarkada inguruan.

Halaber, zenbait etxebizi-
tza ere egin zituzten, gaur egun

dagoen moduan geratu arte.

Argazkian agertzen dire-
nak hauexek dira, ezkerretik
eskumara: Pedro Murgoitio,
Gaspar Ezkurra, Joseba Uri-
betxebarria, Eustakio Arregi,
Vicente Uribetxebarria eta Iña-
ki Arrieta. Makurtuta dagoe-

na, berriz, Sabin Amozarrain
da, "Sabin Txiki".

Argazkia 1928. urtekoa da.

Argazkia eta berriemailea:
Joseba Uribetxebarria.



Zenbaki

Basabe Industrialdea, F-0 Pab. • ARETXABALETA

Tel.: 943 71 21 12 • Faxe: 943 71 22 68 • E-mail: zenbaki@jet.es

*Aldez aurretik
deitu!*

Informatu, aukerak aztertu.

Dena profesionalen esku.

ERRENTAREN AITORPENA

TELEMATIKA:
aitorpen arrunta Kobratzeko modurik azkarrena.



MILA ESKER ARRASATE ZURE KONFIDANTZAGATIK



6.621



INFORMAZIOA:

San Roke Auzoa, 1. ELGOIBAR, Gipuzkoa
Tel.: 943 744 132. F.: 943 744 153
Posta elektronikoa: amaia@fmh.es
www.fmh.es



2001-2002 ikasturtea

HEZIKETA ZIKLOAK

GOI MAILA (A eta D ereduak)

- Proiektu mekanikoen garapena
- Mekanizazio bidezko produkzioa
- Industria ekipoen mantentze lanak

ERDI MAILA (A eta D ereduak)

- Mekanizazioa

Ekainaren 5ean atek zabalik, 19:00etan



Euskadi



ES-0633-1998

Izena emateko epea: ekainaren 1etik 12ra, biak barne



urte zuen etxeetan. Eskerrikasko!!

iKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

SUKALDE ERAKUSKETA Udala Plaza, z/g • ARRASATE • Tel.: 943 79 00 43
BAINU ERAKUSKETA Zarugalde kalea, 52 • ARRASATE • Tel.: 943 79 99 42

FAGOR 